

Osotasun Zientifikoari buruzko Adierazpen Nazionala

Ezagutzaren gizarte batean, non ikerkuntza zientifikoa, garapen teknologikoa eta berrikuntza aurrerabiderako eta hazkunde ekonomiko iraunkorrerako funtsezko eragileak diren, berebiziko garrantzia dauka osotasun zientifikoak, ikerkuntzan praxi onaren bermatzaile eta inspirazio iturri gisa. Kalitatezko zientzia baten aldeko apustuak ezinbestean eskatzen du jarrera osotu eta arduratsua ikerkuntzan, horixe baita ezagutzaren aurrerabiderako oinarri lehena, bai eta ondare zientifikoa egonkortzeko eta egiaztatzeko oinarria ere.

Zientziaren gizarte eta ekonomia eragin gero eta handiagoak ez ezik, baita zientziak daukan mugaz gaindiko eta batez ere lankidetza izaerak ere, ezinbestean eskatzen dute ikerkuntza jarduna egikaritzean zientzialarien arteko eta horien eta gizartearen arteko harremanetan erantzukizuna, zintzotasuna, objektibotasuna, alderdikeriarik eza eta konfiantza izatea oinarria.

Nola unibertsitateek, hala ikerkuntza erakundeek, ezagutza sortzeko eta transmititzeko eragile nagusiak direnez, bai eta zientzia eta akademia elkarteek ere, zeinek zientziaren eta teknologiaren garapena eta haren gizarte rolaen sustapena bultzatzen duten, jarduera zientifikoaren berri emateko etika profesionalaren oinarrizko printzipioak ezartzeko erantzukizuna onartu behar dute. Horretarako, jardunbide egokien kodeak onartu beharko dituzte, bai eta osotasun zientifikoko politika argiak sustatu, definitu, ezarri eta zabaldu ere. Era berean, erakundeen kulturaren zintzotasuna bermatzeko helburuarekin, ahalegin nabarmena egin beharko dute euren langileen sentiberatze eta kontzientziazio lanean, bai eta prestakuntza etikoan ere. Prestakuntza egoki batek baino ez baitu ahalbidetuko jardun zientifiko egokien litekeeneko desbideratzeak bizkor hautematea eta diagnosi zuzena egitea, bai eta dagozkien egoera gatazkatsuen tratamendu eta kudeaketa egokia egitea ere.

Adierazpen Nazional honek, hain zuzen, ikerkuntza jarduerari buruzko printzipio etiko eta erantzukizun profesional batzuk ezartzen ditu, eta, aldi berean, zerikusia duten eragile guztien ahalegin eta konpromiso bateratua eskatzen du. Adierazpena sinatzen duen erakunde edo entitate bakoitzari dagokio hura garatzea eta ezartzea, orokorrean kontzientzia etiko bat sustatuz, eta, bereziki, jardunbide zientifiko egoki batzuetan oinarritutako ikerkuntza arduratsu bat sustatuz.

Adierazpen honen edukia ikerkuntza arlo eta diziplina zientifiko guztietan aplikatu daiteke, eta beronen helburua bat dator, gainera, gai honekin lotuta garrantzitsuenak diren Adierazpen, kode edo txosten nagusien helburuekin¹.

Ikerlanaren asmoa eta helburua. Ikertzaileek, euren jardura zientifikoa egikaritzean eta garatzean, ezagutzaren aurrerabidean lagundu behar dute, gizadiaren onurarako; betiere, gizakiaren duintasuna eta bere borondatearen autonomia errespetatuz, datu pertsonalak babestuz, animalien ongizatea bermatuz eta ingurumena zainduz.

Ikerketa emaitzen fidagarritasuna. Ikertzaileek ezagutza objektibo baten bila ibili behar dute sistematikoki, ziurtzat onar daitekeena; alegia, egiaztatutako eta baliozkotutako emaitzetan oinarrituta, euren kaudimena eta sinesgarritasuna bermatu ahal izateko.

Metodologia. Ikertzaileek metodo eta prozedura egokiak erabiliko dituzte, eta euren ondorioak analisi kritiko batean eta lortzen dituzten emaitza guztiekiko analisi independente batean oinarrituko dituzte, modu osotu eta objektiboan interpretatuz.

Datuen eta emaitzen erregistroa. Ikertzaileek doitasunez, zehaztasunez eta argitasunez erregistratu beharko dituzte euren ikerlanen datuak eta emaitzak; hartara, errazago egiaztatu, erreproduzitu eta errepikatu ahal izango dituzte hirugarrenek.

Emaitzen zabalkundea eta jakinarazpen publikoa. Emaitza egiaztatu eta baliozkotuak modu ireki, garden eta zintzoan zabalduko dira, ordenamendu juridikoak edo jabetza eskubideetatik eratorritako ordenamendu instituzionalek inposatutako mugak besterik ez dituztela. Horrenbestez, saihestu egingo dira beharrezkoak ez diren atzerapenak, eta emaitzak ahalik eta modurik aseptiko eta neutralenean jakinaraziko dira, profesionaltasunez eta gardentasunez, euren garapenaren aldi errealerara egokituta. Emaitzen interpretazio subjektiboak edo gehiegizkoak saihestu egin beharko dira; eta saihestu, halaber, informazioa nahita ez ematea, nahasketa eragin baitezake, itxaropen faltsuak sortzea, edo berehalako irtenbideak edo berez ez daudenak badituela sinestaraztea.

Egiletza. Ikertzaileek euren azterlan, txosten edo irizpen, argitalpen edo finantzaketa eskaera guztien edukiaren erantzukizuna onartu beharko dute. Egiletzat jo beharko

¹ Singapore Statement on Research Integrity (2011) 2nd World Congress on Research

<http://www.singaporestatement.org/statement.html>

Montreal Statement on Research Integrity in Cross-Boundary Research Collaborations (2013) 3rd World Congress on Research Integrity <http://www.researchintegrity.org/Statements/Montreal%20Statement%20English.pdf>

European Charter for Researchers. European Commission

<http://ec.europa.eu/euraxess/index.cfm/rights/europeanCharter>

European Code of Conduct for Research Integrity. European Science Foundation/All European Academies (2011)

http://www.esf.org/fileadmin/Public_documents/Publications/Code_Conduct_ResearchIntegrity.pdf

OECD (2008) Best Practices for Ensuring Scientific Integrity and Preventing Misconduct

<http://www.oecd.org/sti/sci-tech/40188303.pdf>

Statement of Principles for Research Integrity. Global Research Council

http://www.globalresearchcouncil.org/sites/default/files/pdfs/grc_statement_principles_research_integrity%20FINAL.pdf

dituzte, gainera, zabaldu nahi den lanaren edukiak osatzen, esperimentatzen, diseinatzen, aztertzen edo interpretatzen modu nabarmenean lagundu dieten pertsona guztiak, eta era guztietako ekarpenak onartu beharko dituzte (entitate finantzatzaileak eta babesleak barne). Era berean, egileek aipatu egin beharko dute oraingo lanaren argitalpenean edo jakinarazpenean eragina izan duen alde aurretik zabalduko zeinahi lan.

Baliabideen kudeaketa. Ikertzaileek neurrizko erabilera eman beharko diete eskura dauden bitarteko eta baliabideei. Aurreikusitako helburuetara bideratu beharko dituzte, eta ekonomia, gardentasun eta eragingarritasun irizpideen arabera antolatu zein kudeatu. Euren atxikitze erakundeek baliabideen kudeaketa eta antolamendu egokia bideratu eta bultzatuko dute.

Lankidetzaren ikertaldean. Ikertalde bateko kideek komunikazio argi, ireki eta etengabea eduki beharko dute euren artean, taldean egindako ikerlana behar bezala uler eta interpreta dezaten. Inola ere ez zaio trabarik jarriko talde lehiakideen edo eztabaidak eragiten dituzten taldeen ikerlanari.

Lidergoaren egikaritzea. Ikertzaileek modu bidezkoan, zentzuzkoan eta erantzukizunez egikaritu behar dute tutoretza eta lidergo lana. Gidatzen duten ikerlanaren garapena kontrolatu eta gainbegiratu beharko dute, portaera profesional eredu garria izan beharko dute, eta jarrera pedagogiko etengabea. Judizio kritikoa, iritzi trukea, bizikidetzaren baketsua eta jardunbide zientifiko egokien jarraipen eraginkorra sustatuko dituzte.

Ikerkuntzaren sustapen arduratsua. Ikertzaileek euren atxikitze erakundeekin lankidetzan jardungo dute ikerkuntzaren praxi egokia sustatzeko, horrekin lotutako orientabideak eta gomendioak emateko, osotasun zientifikoa eratzeko, bai eta jardunbide egokien desbideratzeak identifikatu, landu eta kudeatzeko ere.

Beste entitate batzuekiko lankidetzaren ikertaldean. Ikertzaileek atxikitze erakundearen jabetzako ezagutzak eta informazioa gordeko dituzte, lortu nahi diren helburuak adostuko dituzte, parte hartzaileen eskubideak errespetatuko dituzte eta hitzartutako betebeharrak onartuko dituzte.

Ezagutzaren transferentzia. Ikertzaileek errespetatu egin beharko dituzte euren erakundearen jabetza industrial zein intelektualeko politikak. Ezagutzaren transferentzia egiten lagunduko dute; betiere, kontratatutako ikerlanaren baldintzetan zehaztutako interes instituzionalak, jabetza eskubideen titulartasuna, lizentzien banaketa edo ustiapen eskubideen lagapena zainduz.

Ebaluazioa. Zeinahi ikerkuntza proiektu edo ikerlan, horietatik eratorritako argitalpen edo hautapen prozesu ebaluatzean, ikertzaileek isilpekotasun, alderdikierarik eza, objektibotasun, independentzia eta prestasun irizpideen arabera jokatu beharko dute. Behar diren ezagutzak edo gaitasun egokiak eduki ezean, ebaluazioan parte hartzeari uko egingo zaio. Ebaluatzaile moduan parte hartzeari uko egingo zaio, halaber, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako zeinahi arrazoi gertatuz gero, edo pertsona horren irizpide edo judizio profesionalaren independentzia arriskuan jar



lezakeen beste zeinahi egoera gertatuz gero. Informaziorako sarbideak sekula ez du ekarriko emaitzak bidegabeki eskuratzea.

Interes gatazkak. Interes errealeko, itxurazko edo litekeeneko zeinahi gatazka adierazi egin beharko da, baldin eta ikerkuntza jarduera, beste entitate batzuekiko lankidetzak, langileen prestakuntza, ebaluazio zereginak edo emaitzen zabalkundea behar bezala gauzatuko direla ezbaian jar badezake edo horietan eragin okerra izan badezake.

Osotasun politika. Erakundeek ingurune zientifiko egokiak sortzeko konpromisoa hartu beharko dute, ikerkuntzan portaera arduratsua sustatuz, jardunbide zientifiko egokiak bultzatuz, gai horri buruz sentiberatzeko, kontzientziatzeko eta hezteko prestakuntza jarduerak sustatuz, eta, azken batean, osotasun zientifikoarekin lotutako kultura instituzionala bultzatuz. Helburu horietarako, erakundeek saiatu beharko dute euren prestakuntza programetan osotasun zientifikoaren printzipioak txertatzen; bestalde, praxi zientifiko okerra identifikatzeko, lantzeko eta kudeatzeko prozedurak zein eskumena duten organoak definituko dituzte.

Madriren, 2015eko abenduaren 2an

Honako Adierazpen hau sinatzeko interesa duten erakundeek horren berri eman beharko dute honako helbide elektroniko honetan: comitedeetica@csic.es. Helbide berean egin ahal izango da, gainera, gai honekin lotuta sor litekeen zeinahi zalantza argitzeko eskaera.